

Euskara eremu sozioekonomikoan sustatzeko plana: 2020 – 2023

0.SARRERA

Eremu sozioekonomikoan euskararen erabilera ezartzeko hizkuntzen kudeaketa garatzeko ahaleginak eskatzen duen jauzi kualitatiboaz kontziente, 2015ean hasi ziren gaiari buruz hizketan alor horretako herri ekimeneko aholkularitzak eta instituzioak. Ordura arte egindako ahalegin guztiak eta gehiago behar zirela aitortuz, elkarlanean oinarritutako bidea ikuskatu zen aurrez aurre. Horretarako, Kontseiluaren baitako aholkularitzen sektoreak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak (HPS hemendik aurrera) lan mundua euskalduntzeko estrategiak identifikatzeko prozesu baten beharra mahaigaineratu zuten. Izan ere, baziren gaiaren inguruko hausnarketa eta proposamenak eginak (Euskara Sustatzeko Ekintza Planean jasoak, adibidez), nola ez, baina ez zegoen Administrazioak, Euskalgintzak eta eremu sozioekonomikoko eragileek elkarrekin egindako hausnarketarik.

Egiteko hori helburu, 2018an parte hartze prozesu bat burutu zen eta handik eremu honetan euskara sustatzeko gako nagusiak jaso eta garatu ziren; 2019an, berriz, Aurrerabide metodologiara egokitu da txostena eta kudeaketa aurreratuaren bidetik osatu da planaren aurkezpena. Hala, dokumentu hau da bi bide horien emaitza.

Emaitza horretan sartu aurretik, komeni da dokumentuaren izaeraz pare bat hitz egitea. Ikusiko denez, hemen jasotakoak lan munduaren euskalduntzean jauzi kualitatiboa emateko estrategiak dira, eta berariaz, bi eremuri begira jarri gatazka: bereziki zerbitzu enpresen multzoa osatzen duten inguruei, eta bereziki, industrialak diren eremuei.

Plan honetan jasotzen dira HPSren eskumen eta zereginak, baita Jaurlaritzarenak bere osoan gaingiditzen dituzten proposamenak ere. Gauza jakina izanik lan munduak gure gizartea goitik behera zeharkatzen duela, lan munduan eragingo duten estrategiek ere gizartea bere osoan ukitu beharko dituzte, eragingo bada. Hori dela eta, eragile ugariarentzako lanak biltzen dira bertan: administrazioarentzat (Eusko Jaurlaritza, Aldundiak eta Udalak), euskalgintzarentzat (Aholkularitzak nagusiki, baina baita beste eragileak ere), enpresentzat (enpresariak, kooperatibak...), langileentzat (sindikatuak nagusiki, horiek langileen ordezkariak diren heinean), eta herritarrentzat (bai kontsumitzaile elkarleen bidez, baita euskalgintzaren bidez ere). **Guztiak ez dituzte ardura eta erantzukizun berdinak izango Eremu sozioekonomikoan euskararen erabilera ezartzeko hizkuntzen kudeaketa garatzeko jardunean, baina guztiak dute zeresana eta egitekoa. Eusko Jaurlaritza eredugarri izan behar da prozesu horretan, lidergoa erakutsi behar du. Izan ere, Administrazioari dagokio, lehenik, herritarren hizkuntza eskubideak bermatzea eta lan hizkuntza euskara izan dadin sustatzea. Hala, administrazioako langileen %71k nolabaiteko euskara-ezagutza izanik, euskarak zerbitzu-hizkuntza eta lan-hizkuntza izan behar du gurean, eta gizartearekiko harremanetan, eragile izatea dagokigu.**

Gauzak horrela, dokumentu honetan jasotako proposamenari begira, eragile bakoitzak dituen arduren arabera, bere jardunetik hemen jasotakoak nola bideratuko dituen zehaztea litzateke hurrengo urratsa. Betiere, lankidetzan eta modu koordinatuan lantzea izango da biderik emankorra jausi garrantzitsu hori arrakastaz burutzeko. Eta elkarlan horretan egin beharreko lehen lanetako bat izango da, hain zuzen ere, irudikatzea 5 urte barru nola egon nahiko genukeen, eragile bakoitzak horra heltzeko zer neurri hartuko duen erabakitzen lagunduko baitu.

Hona, bada, prozesu horiek emandakoa.

1. AURKEZPENA

Euskararen galera etengabeari galga jartzen hasi zitzaion 1960ko hamarkadan. Mendetako galera prozesua azeleratu egin zen XX. mendearen lehen erdian. Testuinguru zail horretan, baina, euskararen herriak indarra eta ausardia izan zuen bere hizkuntzari eutsi, eta berreskurapen eta indarberritze prozesuari hasiera emateko.

Orduz geroztik, hamarkadaz hamarkada euskara indarberritzeko urrats estrategikoak eman dira: euskara batua; ikastolak (hezkuntzan euskara txertatzea, oro har); helduen euskalduntze-alfabetatzea; euskarazko komunikabideak; administrazioaren euskalduntzea... Egindako ibilbide horrek jakintza metatzeko eta ikuspegi garatuago bat edukitzeko balio izan du. Inoiz baino esperientzia metatu handiagoa dago, beraz, erronka berri bati heltzeko. Azken urteetan etengabe mahai gainean jartzen ari da euskara biziberritzeko bide horretan iritsi dela lan munduari, eremu sozioekonomikoari, ganoraz heltzeko unea. Orain arte emandako urrats estrategiko guztiek hurrengo urratsa eskatzen dute, egindako guztia ezerezean geratzeko arriskua uxatuko bada. Azken batean, eremu sozioekonomikoak pertsonen egunerokoa ardatzen du: kontsumitzaile, langile zein herritar gisa. Gainera, euskara indarberritzeko egindako ahaleginari esker, inoizko gazteriarik prestatuena eta euskaldunena iristen ari da lantokietara eta, tamalez, eskolak egindako ahaleginak ez du jarraipenik ziurtatuta lan munduan; sarri askotan, normalizazio katea eten egiten da.

Eremu sozioekonomikoa, lan mundua, euskalduntzeaz dihardugunean hizkuntza kudeatzeaz dihardugu. Testuinguru eleanitz honetan hizkuntza bakoitzari bere lekua egiteaz eta aitortzeaz mintzo gara, eta elkarbizitza duina aurkitzea da helburua. Bide horretan euskararen normalizazioa sisteman sartzea ezinbestekoa da. Asko da euskarak eremu sozioekonomikoari eman diezaiokeena: nortasuna, justizia, ongizatea, kalitatea... Eta, noski, lan munduak ere asko du euskarari emateko, tartean, biziberritze prozesuan aurrera egiteko ezinbesteko aukera. Lan munduan euskararen normalizazioa sustatzea inplikaturako eragile guztiek elkarlanean, zeharlerrotasunez eta modu proaktiboan gauzatu beharreko zeregina da: eremu sozioekonomikoa, euskararen mundua eta Administrazioa.

Ez gara hutsetik abiatzen. Azken 20 urteotan esperientzia ugari abiatu dira eta badago nondik edan; esate baterako, INDEUS plataforma, Bikain ziurtagiria eta Bai Euskarari Ziurtagiria, udalerrri mailan abiatu diren bestelako programak, Lanhitz dirulaguntza deialdia, EUSLAN programa, eta abar.

Gizarte erantzukizuna ardatz hartuta, azpimarratu behar da Euskara Planek egindako ekarpena.

o Euskaldunen kopurua handitzeko.

- o Euskaldunak alfabetatu eta trebatzeko.
- o Harremanak euskalduntzeko.
- o Komunikazio mugak gainditzeko.
- o Euskararen korpusa aberasteko.
- o Hizkuntza aniztasunean ahalduntzeko.
- o Tokikoari balioa emateko.
- o Kudeaketa ereduan euskara txertatzeko.
- o Enpresen proiektu soziala indartzeko.

Horietan sakontzeko beharra eta aukera ikusi zen 2017an Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politika Sailburuordetza eta euskalgintzako eragile eta aholkularien arteko mintegiak elkarrekin eratzen hasi ginenean. Eusko Jaurlaritza gidari zukeen jauzi kualitatibo bat egitea adostu zen guztien artean, eta horren ondotiko emaitza da dokumentu hau. Bisioa euskaratik eraikitzen den eremu-sozioekonomikoa garatzea izanik, lau urterako jarduera plana izan nahi duena.

Plan honen helburua da euskararen erabilera lan munduan bultzatzeko lehentasunak elkarrekin landu eta aukeratuta, plana adostu eta ekintzan abiatzea.

2. LANDUTAKO PROZESUA ETA METODOLOGIA

Hizkuntza Politikako Sailburuordetzak hartu du, zuzenean, prozesuaren lidergoa eta, ikerketa guztiak eta jasotako informazio guztia kontuan izanik, plan hau burutzeko azken fasean murgildu da.

Esan bezala, planak euskarri garrantzitsu batzuk izan ditu. Horietan oinarritu dira gogoeta eta praktikak eta egin dira planerako proposamenak. Merezi du labur aipatzea:

Euskara alorreko iturriak:

- Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (HPS, 2015)
- Euskal Herriko VI inkesta soziolinguistikoa (HPS, 2016)
- Euskararen Adierazle Sistema (HPS, 2019)
- Liburu zuria. *Euskal Autonomia erkidegoko eremu sozioekonomikoan euskararen plan estrategikoa, 2019-2023* (EMUN, 2018)
- *Euskal Autonomia Erkidegoko eremu sozioekonomikoko euskararen plan estrategikoa, 2019-2023* (EMUN, 2018)
- *Euskal Autonomia Erkidegoko eremu sozioekonomikoaren diagnostikoa: euskararen egoera* (SIADeco, 2019)
- “Aurrerabide”: Eusko Jaurlaritzarako egokitu den eredia, “Kudeaketa Aurreratuan” oinarritua.
- “Mapa Estrategikoa” eta “Aginte Taula”: Enpresa munduan hain ezagunak diren tresna hauek hartu dira oinarri metodologiko gisa. Tresna hauekin, helburuen analisia, zehaztapena eta hedapena errazten bait da. Gero azalduko den moduan, helburuen arteko kausa – ondorio erlazioetan dago oinarrituta metodologia hau.

- Adierazleen definizioa: helburuak zehazteko, komunikatzeko eta kontrola egiteko funtsezko tresna bezala.

Eusko Jaurlaritza alorreko iturriak, legegintzaldiko plan direnak:

- 1.- Gobernu programa 2016-2020
- 2.- Euskararen Agenda Estrategikoa 2017-2020
- 3.- Eusko Jaurlaritzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Nagusia, Vi. Plangintzaldia 2018-2022
- 3.- Industrializazio Plana 2017-2020
- 4.- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana (ZTBP) 2020
- 5.- Enplegu Plan Estrategikoa 2017-2020
- 6- Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa 2020
- 7.- IV. Unibertsitate Plana 2019-2022
- 8.- Lanbide Heziketako EAEko V. Plana 2018-2021
- 9.- Turismo, Merkataritza eta Kontsumoa Plana 2017-2020

2018ko etapan egindako prozesuan eta handik ateratako txostena oinarri hartuta egin da 2019an AURRERABIDE metodologian plana kokatu eta egokitzeko ariketa. Horretarako, lehenik eta behin, 2018ko txostenaren egokitzapen zirriborro bat prestatu da eta HPSko arduradunekin egin dira hainbat kontraste lan behin-behineko txostena osatu artean. Bigarren etapa batean, agente klabe batzuk aukeratu dira lehenengo kontraste bat egiteko. Bi helburu nagusiri erantzun zaie kontraste hauetan. Alde batetik, plana ezagutaraztea eragile klabe diren hauei eta, bestetik, ekarpenak jasotzea, behin betiko plana zehazterako orduan aztertu eta kontuan hartu direnak.

Talde hauek antolatu dira kontraste hauek lantzeko:

- **Aldundiak eta aholkularitza-enpresak**
- **Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Unibertsitateak**
- **Industria eta enpresari elkarteak**
- **Sindikatuak**
- **Finantza-entitateak**
- **Enplegua, Kontsumoa eta Merkataritza**

Planaren eraketan bi motatako helburuak bereizten dira:

- Azken helburuak (AH): eremu sozioekonomikoan euskararen erabilera handitu dugun edo ez adieraziko digutenak. Hau da, Plangintzaren garapenaren bitartez lortu behar ditugun azken helburuak dira.

- Helburu estrategikoak (HE): azken helburuak lortzeko landu behar ditugun lerroak betetzen diren edo ez adieraziko digute eta bitarteko helburu bezala har daitezke.

Aipatu den moduan, helburu bakoitza zehazteko eta kontrolatzeko adierazleak definitu dira. Honetaz gain, adierazle bakoitzak erreferentziatzko balio bat edukiko du, “helmuga” deituko dioguna.

Behin helburu eta adierazleak adostuta, helburuen lorpena bultzatzeko beharrezkoak diren proiektuak zehaztuko dira.

Horrela, helburu eta adierazleak adostu ostean, ekintza plan zehatza definituko da, eragile guztiekin adostutakoa.

3. OINARRIZKO DIAGNOSTIKOA

Euskara eta eremu sozioekonomikoaren diagnostikoa edo egungo egoeraren azterketa egin da 2018ko eta 2019ko prozesuetan. Lau iturri nagusi hartu dira aintzat plan honen aukerak proposatzeko: liburu zuria, adituekin egindako elkarrizketak, askotarikoei bidali eta jasotako galdetegia eta SIADECOn ikerketa.

Horietatik guztietatik jasotako datu, ideia eta ekarpenak AMIA matrizean eta ondorioen atalean jasota daude. Hona hemen, laburrean, diagnostiko ezberdinen oinarritzko informazioa:

3.1. LIBURU ZURIA

Azken 25 urteetan etengabe egin du gora euskararen ezagutzak (+10 puntu euskaldunak, +11 euskaldun hartzaileak), erabilerak (+5 puntu) eta aldeko jarrerak (+10 puntu). Horrela, 2016an EAEn %33,9 da euskalduna eta 19,1 euskaldun hartzailea, baina oraindik ere %47 dira erdaldunak. Erabilerari dagokionez, gero eta gehiago erabili arren, oraindik nagusiki erdaraz aritzen direnak %63,3 dira. Jarrerari erreparatuz, euskararen erabilera sustatzeko aldekotasan soziala dago (%65 alde, %9,3 aurka).

Egoera soziolinguistikoa, baina, ez da homogenea. Alde nabarmenak daude bai herrialdeen artean, baita adin tarteei dagokionez ere. Eta horrek isla zuzena dauka, ezinbestean, eremu sozioekonomikoan. Herrialdeen artean, Gipuzkoan dago euskaldun dentsitaterik eta erabilerarik handiena: %50,6 da euskalduna, eta %17,3 euskaldun hartzailea. Bizkaian euskaldunen portzentajeak jaitsi egiten dira: euskaldunak %27,6 dira eta euskaldun hartzaileak %20,04. Horrela, euskaraz ez dakitenak erdiak pasatxo dira (%52). Eta Araban dago euskaldun dentsitaterik baxuena: %19,2 dira euskaldunak, eta ia beste horrenbeste euskaldun hartzaileak (%18,4). Alegia, erdaldunak %62,4 dira.

Adin tarteei dagokionez, gazteen artean (16-24) dago ezagutza tasarik altuena (%71,4), baina hain zuzen ere gazteen artean dago erdal elebidunen kopururik handiena (%55,7). Alegia, errazago moldatzen dira erdaraz. Eremu sozioekonomikoan lan munduak duen garrantziagatik, interesgarria da 25-65 adin tartean dagoen ezagutza tasari erreparatzea. Izan ere, lan munduratzeko adina atzeratzen ari den neurrian, adin tarte horietan daudenak baitira nagusiki lan esku: %37,6 da euskalduna eta %22 euskaldun hartzailea, beraz 40,3 erdalduna. Beharrezkoa dirudi, beraz, helduen euskalduntzean sakontzea, epe labur eta ertainean horiek ariko baitira nagusiki zerbitzuak eskaintzen.

Gazteen ezagutzaren gorakadaz hitz egitean, ezinbestean Administrazioetik Hezkuntza euskalduntzeko egindako apustu estrategikoaz hitz egin behar da. Izan ere, D eredu nagusitzen ari da bai derrigorrezko hezkuntzan (%67,3), bai Batxilergoan (%63). Bestalde, hobetzeko gune nabarmenetako bat da Lanbide Heziketarena. Izan ere, D ereduak matrikulazioan duen nagusitasuna, desagertu eta irauli egiten da Lanbide Heziketako matrikulazioan: D ereduak %19,9, B ereduak %13,9 eta A ereduak %66,3. Sakon aztertu beharko litzateke lan mundurako sarbidea modurik zuzenenean lantzen duen ikasketa ereduak zergatik ez dion jarraitzen aurretik gero eta euskaldunago datozen belaunaldien hizkuntza ereduari (DBHn %67,3 D ereduari, LHN 19,9 D ereduari). Aintzat hartuz Lanbide Heziketako irakasleen %68,3k daukala 2.HE, egingarria litzateke gaur egun Lanbide Heziketako euskarazko eskaintza handitzea.

Unibertsitateari dagokionez, Euskal Herriko Unibertsitateari erreparatuz euskarazko matrikulazioak goranzko bilakaera nabaria erakusten du: bai Unibertsitatean Sartzeko Ebaluazioan (%68,3) zein unibertsitateko graduatan (%51,5). Hala ere, USE probak euskaraz egiten duten ikasleen ehunekoaren eta unibertsitatean euskaraz matrikulatzen diren ikasleen ehunekoaren artean tarte nabarmena dago, aintzat hartuz euskaraz eskaintzen dela kredituen %82,6.

Euskaldun datoz, beraz, belaunaldi berriak. Adin piramideari erreparatuz gero, datozen 10-15 urteotan langileriaren multzo handi batek erretiroa hartuko duela ikus daiteke, eta beraz, lanpostu horietako asko belaunaldi berriak –eta ziurrenik etorri berriek- bete beharko dituztela. Hain zuzen ere, aurrez aipatu bezala, euskaraz lan egiteko gaituta datozen belaunaldi berriek.

Lan munduari erreparatuz, Bizkaian daude establezimenduen %52, Gipuzkoan %34 eta Araban %14. Establezimenduen %92,5 10 langiletik behera du, 10-99 langile %7 eta 100 langiletik gora %0,5. Azken datu hau aintzat hartzekoa da, euskara planak nagusiki 10 langiletik gorako enpresetan jorratzen baitira. Bai Euskarari Ziurtagiriaren metodologiarekin ere lanean ari dira, nagusiki enpresa txiki eta ertainak.

Jarduerak aztertuta, Administrazio ezberdinetako enplegatu kopurua batuta, ikus daiteke administrazioak duela langile kopuru gehien eta, gainera, zerbitzu gehienetan herritarrekiko harreman zuzena dute. Hori dela eta, lehentasunezkoa da administrazioa euskalduntzea. Bide horretan, Administrazioa euskalduntzeko VI Plangintzaldia dago abian.

Bigarren postuan manufakturako industrian diharduten langileak daude (%19,2). Gure ekonomian sektore garrantzitsua da, nahiz herritarrekiko zerbitzu ematea apalagoa den kasu gehienetan. Baina, bi balio interesgarri ditu: batetik, bere eraginpean dagoen langile kopuru handia; bestetik, gure ekonomiaren ardatz garrantzitsua den heinean, barrura zein nazioartera begira ematen duen irudia. Zein identitate agertzen duen hizkuntzaren biziraupenari begira, prestigioa eman, beharra sortu eta balio eman diezaiokelako tokiko hizkuntzari.

Enpresen kulturaren ezaugarrietariko bat sistematizazioa da eta hau da hizkuntzarekiko jartzen diren helburuak lortu eta etorkizunean organizazio barruan bermatuko direla segurtatuko duen tresna. Beste ezaugarri interesgarri bat lidergoarena da eta organizazio barruan pertsona gutxi batzuk besteengan duten eragina euskara lan hizkuntza moduan erabiltzen hasteko.

Merkataritzan aritzen da enplegatuen %14,8. Administrazioak duen lehentasun maila bera du, irudia emateaz gain, herritarrekiko hartu-eman zuzena eta etengabea duelako. Ostalaritzak, bestalde, langile gutxiago izanagatik ere, harreman estua du kanpo eta barne bezeroekin.

123/2008 Dekretuak, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Hizkuntza Eskubideak aitortzen ditu, eta zereginak ezartzen dizkie jarduera eta enplegatu kopuru jakin batzuetako establezimenduei. 2015ean egin zen dekretuaren betetze mailari buruzko azterketa. Hona bi datu: arauaren eraginpekoak direnen %42k ez du ezagutzen Dekretua, eta %22k baino ez du betetzen.

Bestalde, aipatzekoa da EAEko administrazio guztiek (Eusko Jaurlaritza, Aldundiak eta Udalak) dituztela eremu sozioekonomikoan euskara sustatzeko neurriak eta programak abian. Eusko Jaurlaritzak kudeatzen duen Lanhitz programan 441 entitate ari da eta 329 entitatek Bikain Ziurtagiria du. Hala ere, establezimenduen %1 baino ez da ari euskara planekin. Udalen eskutik, aldiz, nagusiki txikizkako merkataritzan eragiteko merkataritza planak ari dira garatzen. Eta aurrekontuei dagokionez, Euskara aurrekontu likidatuak %1eko pisua dauka aurrekontu orokorretan batez beste. Eta euskararen aurrekontuaren %2,3 baino ez da eremu sozioekonomikora bideratzen.

Administrazioa ez da bakarrik ari zeregin honetan. Adibide gisa aipatzekoa da, esate baterako, administrazioaz gaindiko eragileak lan mundua euskalduntzeko azken 20 urteetan enpresetan euskara planak garatuz egiten ari diren ekarpena. Bide horretan elkarlan iraunkorren ari dira Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluko bazkideak diren hizkuntza aholkularitzak: AHIZE, Artez, Elhuyar eta Emun, Bai Euskarari Elkartearekin batera. Elkarlan horren fruitu da “Lan mundua euskalduntzeko adierazpena”, besteak beste. Horretaz gain, Bai Euskarari Ziurtagiriaren bidez ere eragiten ari da (902 ziurtagiri EAEn, Euskal Herri osoan 1.360).

Ikus daitekeenez, eragile desberdinek lantzen dute eremu sozioekonomikoan euskararen sustapena. Baina faltan sumatzen da egiten ari den horren guztiaren koordinazio antolatu eta sistematikoa bat.

Amaitzeko, ezin aipatu gabe utzi eremu sozioekonomikoan arnagune diren horiek. Badago sektore bat euskaratik eta euskaraz lan egiten duena. Batzuk euskararen beraren sustapena eta erabilerari lotutako zerbitzu eta jarduerak eskaintzen dituzte eta beste batzuk hizkuntzari hertsiki lotua dagoen produktua edo zerbitzua ematen dute, eta hori euskaraz egiten dute. EAEko ekonomian p pisu ekonomikoa ere badute. EAEko ekonomiak sortzen duen enpleguaren %6,3 eta Balio Erantsi Gordinaren %4,5 euskarari lotua dago. Sektore ekonomiko gisa, erkidegoko Barne Produktu Gordinaren %4,2 dagokio euskarari eta turismo sektoreak (BPGren %5,8) euskal ekonomian duen pisura hurbiltzen da.

3.2. ADITUEKIN ELKARRIZKETAK

Hainbat izan dira prozesu honetan parte hartu duten adituak, bai saio irekien edota elkarrizketen bidez euren ekarpena eginez. Jarraian datoz aditu horiengandik jasotako ekarpenetatik ateratako ondorioak:

Lan mundua euskalduntzeko erronka gauzatzeko ITUN POLITIKOA adostearen beharra dago:

- Lan mundua euskalduntzearen erronka ikuspegi orokorrean kokatu behar da, hizkuntzaren (euskararen) etorkizunaren ikuspegiarekin. Lan mundua euskaldundu gabe, eskola eta hezkuntzaren bidez euskaldundu diren pertsona horiek erdaldundu eta katea eteteko arriskua dago.
- Hiru dira prozesu hau aurrera eramateko palanka nagusienak: Gobernuak (erabaki politikoa), gizarte zibilaren aktibazioa eta beso teknikoa (aholkularitza enpresak).
- Administrazioa eta eremu pribatuak (sozioekonomikoak) elkarrekin heldu behar diote erronka honi, markoa adostu eta aurrera egiteko urrats sendoak zehaztuz.

- Eskubideak bermatzeko ardura Administrazioarena da. Gizartearen ongizatea, berdintasuna eta bake justua bermatzeko ardura du. Eta Ituna zehazteko prozesuan lidergoa hartu beharko luke.
- Langileen hizkuntza-eskubideak legez babestuta egoteak ahalbidetzen du enpresak neurri bereziak hartzea eta Administrazioa behartzen du baliabide erantsiak ezartzera.
- Gizarteak oro har eta kontsumitzaileak zehazki, zerbitzua euskaraz jasotzeko duen eskubidea barneratu eta eskaera egiteko kontzientzia eta konpromisoa hartu behar du.

LANBIDE HEZIKETA, UNIBERTSITATEA

- Lanbide Heziketa oso lotuta dago lan munduarekin. Batak eta besteak elkar elikatzen dute. Bat ez bada euskalduntzen, bestea euskalduntzea artifizia da.
- Gaur egun ikasketak euskaraz egiteak ez du balio erantsirik, lanera joaten direnean lan hizkuntza gaztelania edo ingelesa izan ohi delako. Eta balantzan jarrita euskara-gaztelania-ingelesa, ingelesa aterako litzateke balio handiagokoa.
- Etorkizuneko langile erdalduna sortzen gabiltza, eta balioa kentzen euskarari.
- Irakasleak prestatuta daude eskolak euskaraz emateko. Esfortzu handia egin da prestakuntza eta zikloak euskaraz emateko. Baina gehiago behar da.

Eragileen arteko LANKIDETZAREN bidea jorratu behar da:

- Eragile desberdinak elkartuko dituen bisio partekatua eta proiektu komuna izango da. Lankidetzan egin beharreko prozesua da, bakoitzak erantzukizun maila desberdinarekin. Prozesu zehatzak, elkarrekin garatu ditzakegunak eta aurrera eramaten ditugunak.
- Prozesu bakoitzetako aliatuak identifikatu (merkataritza ganberak, SPRI, Foru Aldundiak, Innobasque, aholkularitzak, klusterrak, zentro teknologikoak...) eta proiektu zehatzak garatzeko beharra dago.
- SPRIk eman dezakeen balio erantsia enpresekin daukan harremana eta gertutasuna dira. Eta SPRIk ikusten du euskara bultzatzeko urrats horiek komunean eman behar direla.
- Kontsumitzaile Elkarteek egin dezaketena kontsumitzaileen hizkuntza eskubideen berri emateko. Kontsumitzaile euskaldun gisa dugun ahalmena eta eskaria, produktua, zerbitzua, euskaraz eskatzeko nahia plazaratzea oso garrantzitsua eta eraginkorra dela.
- Prozesu honek denona izan behar du. Denon ardura eta zeregina dela ikusi eta denon artean heldu behar diogu.
- Klusterrek traktore moduan egin dezaketen lana kontuan hartu, mezu asko dituztelako enpresei eta lanbide heziketa zentroetan zabalteko.

ARAUDIAREN BEHARRA

- Enpresek egiten dute araudiak eta merkatuak agintzen dietena.
- Kontsumitzaileen hizkuntza-eskubideek legezko babesa jaso behar dute.

Eremu sozioekonomikoaren beharretara egokitutako PROGRAMAK:

- Gakoa enpresan dago. Enpresak euskara erabiltzeko jarrera badu, langile hori euskaldundu egingo da; bestela, erdaldundu.
- Euskara indartu beharra dago, gestioa konplikatu gabe eta enpresa/saltokien testuinguru zehatza kontuan hartuz.
- Jaurlaritzak zerbitzu publiko bat eman behar du lan mundua euskalduntzeko. Administrazioak bultzatutako programak, hiru Lurraldeetako Administrazioak mezu eta eduki berdinarekin.
- Euskaraz funtzionatzen duten enpresei eta euskara normalizatzeko lanei hobari fiskalak ematearen aukera garatu beharra dago.
- Bikain edo Bai Euskarari ziurtagiriak sendotu eta baliatu behar dira, baita bestelako aitortza bideak aztertu ere.
- Hizkuntzen kudeaketa egin beharraz jabetu behar dira enpresetako arduradunak. Hizkuntzen aniztasuna kudeatzea behar bat da enpresentzat, eta kudeaketa hori ondo egitea aberasgarria da.
- Alde publikoak, Administrazioak, eredugarria eta proaktiboa izan behar du: zuzendariak euskaraz ondo jakitea eta euskara erabiltzea, euskararen erabilera sistematizatuko duten prozedurak egotea...
- Kexaren bidean gehiago egiteko aukerak ikusten dira. Bezeroak presioa egitea, enpresa galdetegietan (gogobetetzea, etab.) hizkuntza kudeaketaren gaia sartzeari.

Diskurtsoa eraikitzeKO KOMUNIKAZIO ekintzak aurrera eraman behar dira:

- Enpresa munduan erreferente direnei entzun behar zaie. Euskara normalizatzeko proiektua edukitzeak edo ez edukitzeak zer esaten duen bere enpresari buruz. Enpresa handiak euskararen normalizazioan ez dira arrazoi ekonomiko hutsagatik inplikatu. Beste diskurtso batzuk erabili behar dira: errespetuarena, herriaren bizi kalitatearena, identitatearena...
- Euskara enpresaren markarekin lotu behar da. Enpresaren irudia saltzeko oso interesgarria izan daiteke euskararekin lotzea.
- Pertsona bakoitzarekin konektatzeko, alderdi emozionalera iristeko, hizkuntza garrantzitsua da.
- Enpresen erantzukizun sozial korporatiboaren baitan kokaleku osoa du euskararen normalizazioak eta enpresaren irudia proiektatzeko interesgarria da.
- Gizarte batean bizi gara, politika batekin eta kultura batekin. Eta kultura horretan jaio garenak, nahi dugu kultura horretan bizitzen jarraitu, eta horregatik nahi dugu euskaraz egiteko aukera hori indartu.
- Euskara hemen indartu behar dugu euskaldunak garelako eta hemengo kultura delako. Eta kanpora jotzen dugunean, bertako hizkuntzak.
- Gizarte zibilaren aktibazioa. Gizarteak presioa egitea: merkatua mugitu, enpresak mugitu.
- Kontsumitzaile euskaldun gisa dugun ahalmena aintzat hartu behar da. Eskaria, produktua, zerbitzua, euskaraz eskatzeko nahia plazaratzea oso garrantzitsua da.
- Euskara balio positiboekin lotzeko beharra ikusten da. Saltzen asmatu behar da, euskararen mesedeak ikusaraziz.

- Munduan euskara bizirik mantentzea euskara dakigunon zeregina bada ere, dakitenen eta ez dakitenen erantzukizuna da, guztiona den ondarea babesten duelako.

Euskararen elikadura: KULTURGINTZA

- Kulturgintzaren sektorea estrategikoa da euskararen normalizazioaren ikuspegitik, sektore horretan ekoizten diren “produktuek” euskal gizartea elikatzen dutelako. Ez dira torlojuak produzitzen, euskaldunek euskaldun izateko eta euskaraz bizi ahal izateko kantak, liburuak, pelikulak... ekoizten dira. Gainera, terminologia zehazten, eta corpusa osatzen eta aberasten ere egiten du ekarpena sektoreak. Eta euskaraz funtzionatzen duten enpresa diren heinean, lan munduan euskaraz jardun daitekeela erakutsiz ere ekarpena egiten dute.
- Sektoreak bi problematika nagusi ditu. Bata, gure hizkuntza eremu urrikoa izatea: euskal komunitateak daukan neurria dauka, eta, gainera, hizkuntza hegemonikoen alboan ari gara. Bestea, gizartean kulturak zer nolako pisua duen.
- Merkatuko desoreka hori beste moduren batean estali beharra dago. Alde horretatik, Administrazioaren inplikazioak handiagoa izan behar du. Aldarrikapen historikoetako bat izan da Industria Sailari ere badagokiola, ez soilik Kulturari edo Euskarari kultur industria sustengatzea: azpiegitura eta lantaldeak egonkortu eta sendotzeko laguntzen bidez, pizgarri fiskalak emanez...
- Kultur bonoak lagungarriak dira liburugintzaren kate osoarentzat, ez bakarrik argialetxearentzat, liburu-dendentzat ere garrantzitsuak dira. Eta funtsezkoa da liburu-dendak bizirik egotea.
- Sormen lanari bultzada ematea garrantzitsua da, proiektuak lagunduz. Jaurlaritzak azken urteetan ilustrazio eta literatura proiektuen sorkuntza lanak diruz laguntzeko programak abiatu ditu. Horietan sakondu behar da, sortzaileek salmentatik jasotzen duten eskubideen kopurutik ezin baitute bizi.
- Hezkuntzak asko egin dezake haur eta gazteak kulturazalatzeko, sormen sena sustatzeko eta kontsumo ohituretan eragiteko. Gazteak kulturazalatzeko badira, txiki-txikitik ekin behar diogu. Eskolaldi osoa, arautua eta ez arautua, kontuan izango duen proiektu oso bat garatu beharra dago, non landuko den modu ordenatu batean, ez bakarrik irakurzaletasuna, baita kulturaren transmisioa, kultura sorkuntza... Eta proiektuak bere baitan bildu beharko lituzke ekintza zehatzak logika, ordenamendu eta baliabideekin. Hezkuntza komunitateari era horretako bitartekoak eta tresnak eskaini behar zaizkio, hark curriculumean txertatu eta aplikatu ditzan
- Kultur industriaren parte bat euskaraz ari da (gara), bai lan- jardunean eta baita ekoizpena bera euskaraz argitaratuz. Baina bada beste hainbat kultur eragile erdaretan soilik ari direnak ere, euskararekiko inolako kezkarik gabe. Administrazioetatik diru-laguntzak jasotzen dituzten produktu eta eragile guztiei eskatu beharko litzaieke euskalduntzeko neurriak hartzea, kuota bidezkoak barne, ekoizpenean, lan jardunean, komunikaziotan...

3.3. GALDETEGIA

2018ko prozesuan, on-line galdetegi bat bidali zitzaion euskara eta eremu sozioekonomikoko eragileen lagin bati (administrazioa, enpresen ordezkariak, lan munduko zein enpresagintzako eragileak eta enpresak eurak). Galdetegiaren bidez, lehenengo saio irekian jasotako iritzi eta beharrak osatu dira.

Jarraian datoz galdetegiaren emaitzetatik ateratako ondorioak:

- Administrazioak kontratazio publikoen bidez herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko neurriak hartu beharko lituzke (%81).
- Eremu sozioekonomikoan euskara normalizatzeko lege markoa garatu beharra dago (%88).
- Euskara zabaltzeko ekimenak dituzten enpresak eta saltokiak gizartearekiko erantzukizunez dihardute (%94).
- Zerbitzua eman dezaketen langileak egotea, bereziki bezeroarekin/erabiltzaileekin harremana duten lanpostuetan, beharrezkoa da (%88).
- Langile eta enpresarien arteko akordio zabala sustatu beharko litzateke euskararen erabilerak aurrera egiteko (%91).

3.4. SIADECOren IKERKETA

Siadeco enpresak burututako diagnosiaren ondorio hauetatik bideratu da plana:

- Sektore pribatuan 123/2008 dekretua bete behar luketenen %22k baino ez du betetzen.
- Lehen eta bigarren hezkuntzan D eredu oso zabalduta dagoen arren, Lanbide Heziketan eta Unibertsitatean euskaraz ikasten dutenak nabarmen gutxiago dira.
- Azken urteetan LanHitz programan esleipenak behera egin dute, baina eskaerak ere bai.
- Lan-munduan euskara sustatzeko estrategikoak izan daitezkeen **ESKUALDE MULTZOAK** honako hauek dira:

HIRU HIRIBURUEN ESKUALDEAK (Bilbo Handia, Arabako Lautada eta Donostialdea) + BEHE BIDASOA	DURANGALDEA Bizkaian eta DEBA ETA ORIA IBAIEN ARROAK Gipuzkoan (Debabarrena, Debagoiena, Tolosaldea, Goierri)
<ul style="list-style-type: none"> • 2. gune soziolinguistikoko guneak. • Zerbitzuen sektoreak pisu handia du, eta baxuagoa industriak • EAEko establezimenduen eta enpleguaren hiru laurden biltzen dute guztira. • Enpresa txikiak dira gehienak, baina saltoki handiek eta frankiziek pisua hartu dute. 	<ul style="list-style-type: none"> • 3. gune soziolinguistikoko guneak. • Industriak pisu handia du. • EAEko enpleguaren %15 inguru biltzen dute guztira. • Tamaina handiko zenbait enpresa daude.

AMIA MATRIZA

Jasotako gogoeta eta ekarpenez baliatuta, AMIA matriza hau osatu da eta abiapuntu honetatik egokitu da 2019ko plana:

INDARGUNEAK	AHULEZIAK
<ul style="list-style-type: none"> • Euskara ofiziala da 1978az geroztik. • Kontsumitzaileen eta langileen eskubideak aitortuta daude, legez, euskarari dagokionez. 	<ul style="list-style-type: none"> • Enpresa eta establezimenduen multzo txiki bati baino ez diote eragin programa eta ekimen gehienek (%1). • Desoreka handia dago eragindako entitateen artean. Euskara planetan,

<ul style="list-style-type: none"> • Urteak dira erakundeek eremu sozioekonomikoan euskara sustatzeko programak martxan dituztela. • Metatutako esperientzia ugari dago: erakundeena, aholkularitza enpresena, enpresa traktoreena etab. • Euskara Planak aspaldi martxan dituzten zenbait enpresa handi daude. Erreferenteak sortzeko ekimen ezberdinetan parte hartu dute, gainera. • Industrian, EAEko langileen %42 euskalduna da, Lan Merkatuaren Erroldaren arabera. 	<p>bereziki, Gipuzkoako enpresa industrial handien pisua nabarmentzekoa da (Debagoiena-Mondragon taldea).</p> <ul style="list-style-type: none"> • LanHitz programara bideratutako aurrekontuak behera egin du, baina eskaerek ere bai. • Erabiltzaile eta kontsumitzaileen aldetik zerbitzua euskaraz jasotzeko eskaera txikia da. • Indarrean dagoen araudiak ez ditu kontsumitzaileen eta langileen hizkuntza-eskubideak bermatzen, ez delako betetzen (Dekretua bete behar luketenen %22k baino ez du egiten). • Euskara aurrekontuen pisu erlatiboa txikia da (%1). Are txikiagoa eremu sozioekonomikoa euskalduntzera bideratutakoa (Euskarazkoen %2,3). • Lanbide Heziketan euskaraz ikasten dutenen ehunekoa baxua da (%20). Helduen Hezkuntzan euskarak ez du presentziarik. • Koordinazio falta dago eremu sozioekonomikoa euskalduntzeko lanean ari diren eragileen artean.
<p>AUKERAK</p>	<p>MEHATXUAK</p>
<ul style="list-style-type: none"> • Euskararen ezagutza gora egiten ari da, bereziki gazteen artean. • 25 urtetik beherakoen artean aldea txikia da, lurralde eta gune soziolinguistiko batetik bestera, euskararen ezagutzari dagokionez. • DBHn eta Batxilergoan D ereduak nagusi (%67-%63). • 123/2008 dekretuaren eraginpekoen %70ek uste du euskara nahiko edo oso garrantzitsua dela kontratazioetan. %70 dira, era berean, bezeroak euskaraz artatu ahal izateak abantailak dituela uste dutenak. • Dekretuaren eraginpeko enpresa eta establezimendu guztien kezka nagusia da kontsumitzaile eta 	<ul style="list-style-type: none"> • Lurraldeen artean desoreka handiak daude, errealitate soziolinguistikoari dagokionez. • Enpleguari dagokionez pisu gehien duten eskualdeak ez dira euskaldunenak. • Inguruko errealitate soziolinguistikoak eragin handia du langileen euskara-gaitasunean, eta kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskaeran ere bai. • Erabileran bakarrik ez, euskararen inguruko jarreraren eta iritzietan ere eragiten du inguruko errealitate soziolinguistikoak. • Hizkuntza handiak nagusitzen ari dira enpresa munduan, esportazioen eta lurraldetik kanpoko harremanen igoerarekin.

<p>erabiltzaileen beharretara ahalik eta azkarren moldatzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> Lehiakideen aurrean euskara “ezaugarri berezile” izan daitekeela pertzibitzen da. 	<ul style="list-style-type: none"> Elkargoko ekonomilarien %60k uste du euskararen balio ekonomikoa mugatua dela, Euskaditik kanpo ez delako erabiltzen. Merkatu digitaletan hizkuntza handiak dira nagusi. Gehien kontsumitzen dena gazteleraz edo ingelesez dago.
--	---

4. PLANAREN BISIOA


2018 eta 2019ko prozesuetatik eratorritako bisioa eta helburu horretara iristeko helburu nahiz estrategiak definitzeari ekingo diogu hemendik aurrera.

Hauxe da prozesu ezberdinetan adostu den bisioa:

Eremu sozioekonomikoan euskararen erabilera ezartzeko hizkuntzen kudeaketa garatzea.

5. AZKEN HELBURUAK

Azken helburuak zehazteko, lau esparru giltzarri hauek aukeratu dira:



Aktibazioa, berez, aurreko helburuak lortzeko zehar-lerroa edo bitartekoa da. Aktibazio-prozesuetan berebiziko garrantzia izango dute motibazioak eta erantzukizun sozialak, “ezagutza”, “erabilera” eta “eskubideak” arloetan eragin zuzena edukiko dutenak.

Esparru hauek azken helburuen sailkapena eta aurkezpena egiteko erabili dira:

A.H.1. EUSKARAREN EZAGUTZA

Lehenengo esparru edo arlo giltzarri bezala Euskararen ezagutza aukeratu da. Planaren ikusmira ez dago ezagutzari bideratuta baina, egia da, ezagutza maila handitzen ez bada, eremu sozio ekonomikoan euskararen erabilera indartzeko aukerak murriztuko direla.

Hau dela eta, hurrengo azken helburu hauek aukeratu dira arlo honetan:

AH 1.1 “Lanbide Heziketan euskaraz ikasten duten ikasleen kopurua igotzea”

Etorkizuneko langileak izanik, Lanbide Heziketan euskaraz ikasten duten ikasleen kopurua handitzea oso garrantzitsua da eremu sozioekonomikoan euskaraz aritzeko gaitasuna duten pertsonak egon daitezen.

Adierazlea	Helmuga (2023)
"D" eta "B" ereduan matrikulatzen diren ikasle kopurua	%20ko igoera

AH 1.2 “Unibertsitatean euskaraz ikasten duten ikasleen kopurua igotzea”

Lanbide Heziketan bezalaxe, Unibertsitatean ere euskaraz ikasten duten ikasleen kopurua handitu beharra dago ikasleek oinarrizko heziketan lortu duten maila gal ez dezaten.

Adierazlea	Helmuga (2023)
Unibertsitatean "D" ereduan matrikulatzen diren ikasle kopurua	%20ko igoera

AH 1.3 “Enpresetako goi karguetan euskaldun kopurua igotzea”

Eremu Sozioekonomikoan euskararen erabilera sustatzeko gakoetako bat enpresetako goi karguetan euskaldunak egotea da. Faktore hau erabakigarria da enpresetan Euskara Planen garapena bultzatzeko.

Adierazlea	Helmuga (2023)
Zuzendari euskaldunen kopurua (1.go eta 2. multzoan)	%20ko igoera

A.H.2. EUSKARAREN ERABILERA

Lehenago azaldu den diagnostikoa kontuan izanik, arlo honetan agertzen diren helburuak dira, agian, planaren garrantzitsuenak edo, behintzat, planaren amaieran erdietsi behar direnak: aukeratutako eskualdeetan batez ere (lehentasun gisa hartu

direnak) euskararen erabilera indartzea esparru sozioekonomikoan; hau da, lan hizkuntza bezala eta bezeroekiko eta hiritarrekiko harremanetan.

AH 2.1 “Hirigune eskualdetako zerbitzu enpresetan euskararen erabilera handitzea zerbitzu hizkuntza moduan”

Diagnostikoaren datuen arabera hirigune ondoko eskualdeetako eta Behe Bidasoako zerbitzu enpresa multzoa, gakoak izan daitezke eremu sozioekonomikoan euskarari bultzada emateko. 2. gune soziolinguistikoan kokatu daitezkeen enpresak dira eta zerbitzu enpresek pisu handia dute (saltoki handiak eta frankiziak barne).

Datu hauek ikusita, euskara zerbitzu hizkuntza gisa lantzeko aukera ikusten da, nahiz eta momentuz lan hizkuntzan ez sakondu. Euskararen erabilerak bezeroei ematen zaien balio erantsiak dakarren etekin komertziala azpimarratzen da kasu honetan, enpresen atxikimendua lortzeko argudio bezala.

Adierazlea	Helmuga (2023)
<i>2014ko inkesta oinarri hartuta, kontsumitzaileen euskararen erabilera maila</i>	<i>%5a igoera</i>
<i>Lan merkatuaren errolda oinarri hartuta, lanean euskaraz egiten dutenen langile kopurua</i>	<i>%5a igoera</i>

AH 2.2 “Eskualde industrialetan lan hizkuntzan euskararen erabilera areagotzea”

Kasu honetan, diagnosiaren datuak kontuan hartuta, Durangaldea, Deba eta Oria ibaien arroetako gune industrialak lehenesten dira. 3. gune soziolinguistikoan daude kokatuak eta langileek duten euskararen ezagutza altuagoa da, eguneroko bizitzan lantokian baino euskara gehiago erabiliz.

Eskualde hauen egoera soziolinguistikoa ikusita, lanketa nagusia, euskara lan hizkuntza bezala sustatzean zentratuko litzateke. Kasu honetan euskara erantzukizun sozialarekin eta barne kohesioaren hobekuntzarekin lotuko litzateke, besteak beste, euskararen kudeaketa, kudeaketa sistema orokorrean integratuz.

Adierazlea	Helmuga (2023)
<i>Euskara plan kopurua</i>	<i>%10eko igoera</i>
<i>Lan merkatuaren errolda oinarri hartuta, lanean euskaraz egiten dutenen langile kopurua</i>	<i>%10eko igoera</i>

A.H.3. HIZKUNTZ ESKUBIDEAK

Hiritarren, bezeroen, langileen eta kontsumitzaileen euskara erabiltzeko eskubideak ziurtatzea eta bermatzea dira plan honen arlo giltzarri bat. Kasu honetan, helburu bakarra proposatzen da.

AH 3.1 “Kontsumitzaileen dekretuaren betetze maila handitzea”

Interes publiko eta unibertsalekoak diren zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresek bezeroekiko zerbitzugintza euskaraz ere eskaini behar dute.

Jendeari begirako establezimendu edo zerbitzu publikoak eskaintzen dituzten enpresek, kontsumitzaile eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideak modu progresiboan bermatuzaten neurriak hartu behar dira, indarrean dagoen araubidea betearaziz eta horretarako enpresen aldetik konpromisoa, partaidetza eta konplizitatea lortuz.

Gaur egun, burututako azken azterketaren arabera, dekretuaren betetze maila sektore pribatuan %22ra baino ez da heltzen, finantza entitateen betetze maila handiagoa izanik beste sektoretako enpresena baino. Bezeroen hizkuntz eskubideak betetze aldera, ezinbestekoa da dekretuaren betetze mailan urratsak ematea.

Adierazlea	Helmuga (2023)
<i>Dekretua betetzen duten enpresa kopurua</i>	<i>%20ko igoera</i>

A.H.4. ENPRESA ETA BEZEROEN AKTIBAZIOA

Plan honen funtsezko arlo giltzarria aktibazioa da. Ez bakarrik euskaldunena baita gizarte osorena ere. Datorren urteetan oso garrantzitsua izango bait da, gizarteak euskararen erabilera bultzatzeko modu aktibo batean jardutea.

AH 4.1 “Bezeroek zerbitzuak euskaraz jasotzeko eskarien kopurua handitzea”

Enpresek euskararen sustapenari garrantzia eman diezaioten lortzeko, bezeroen presioa faktore erabakigarria izan daiteke. Horretarako, bezeroen motibazioa eta aktibazioa piztea erabakigarria izango da, bezeroek zerbitzuak euskaraz jasotzea eskatu dezaten.

Adierazlea	Helmuga (2023)
<i>2014ko ikerketa oinarri hartuta (dekretuaren betetze mailaren ingurukoa), zerbitzuak euskaraz jasotzeko kontsumitzaileen eskari kopurua</i>	<i>%5eko igoera</i>

AH 4.2 “Enpresentzat euskara ezaugarri bereizlea izatea lortzea”

Enpresek euskararen erabileraren sustapenean urratsak ematea lortu nahi badugu lehiakortasunari lotutako argudioek pisu handia izan behar dute. Bezeroei balio erantsia ematea, marka irudia, barne kohesioa, langileen gogobetetzea eta atxikimendua, besteak beste, diskurtsoaren elementu garrantzitsuak izan behar dira. Modu honetan, entitateek euskara ezaugarri bereizle bezala har dezaten lortu nahi da, lehiakideengandik bereizteko baliagarri izan daitekeen faktore bezala.

Adierazlea	Helmuga (2023)
Lortutako ziurtagiri, zigilu, aitorpen... kopurua	5 puntuko igoera

6. EREMU ESTRATEGIKOA

Behin azken helburuak aurkeztuta, eremu estrategikoa planteatu behar da. Hau da, zer landu behar dugun, bultzatzaile gisa, azken helburu horiek lortu daitezen. Eremu hau eraikitzeke elementu hauek behar ditugu:

ERAGILEAK:

Plan hau Eusko Jaurlaritzatik bideratzen da, Hizkuntz Politikako Sailburuordetzak zuzenduta eta lidergoa hartuta. Baina argi dago plan hau gizarteratu behar dela eta oso garrantzitsuak direla beste entitate eta eragile batzuk, elkarlanean burutu beharko baitira hainbat ekimen eta proiektu.

Beraz, honako hauek dira beharrezkotzat hartzen diren eragile nagusiak:

- Hizkuntza Politikako Sailburuordetza.
- Eusko Jaurlaritzako beste Sailak.
- Beste erakunde publikoak (Aldundiak, Udalak, UEMA...).
- Enpresak.
- Langileak.
- Aholkularitza sektorea.

TRESNAK:

Helburu estrategikoak lantzerakoan argi eduki behar da zer-nolako tresnak dauden eskuragarri esparru ezberdinetan. Honako hauek dira identifikatu diren oinarrizko tresna nagusiak, eragileek, martxan jarriko diren proiektuetan bere esku edukiko dituztenak:

- Legedia.
- Diru laguntzak.

- Ziurtagiriak.
- Komunikazioa eta sentsibilizazioa.
- Sareak eta Foroak.
- Ikerketa.

ARLO GILTZARRIAK

Behin azken helburuak zehaztuta eta eragileak eta tresnak identifikatuta, azken helburuen lorpena bultzatzeko lehenetsi beharreko arloak aukeratu dira:

- Hizkuntza paisaia eta ingurune digitala.
- Zerbitzu hizkuntza (arreta hizkuntza).
- Konpetentzia komunikatiboa.
- Gizartearen aktibazioa (pertsonek eta erakundeak).
- Lan hizkuntza

Arlo giltzarri bakoitzean helburu batzuk zehaztu dira. Dena den, nahiz eta esparru ezberdinetan sailkatu, helburu gehienak zeharkakoak direla aipatu behar da; hau da, ez dira esparru itxi batean kokatzen eta beste esparruetako helburuekin erlazio zuzena dute.

Hau esanda, aurkezten den azken esparrua guztiz zeharkakoa da eta arlo guztietan da beharrezkoa eta oinarrizkoa: “AKORDIOAK LORTU”.

7. HELBURU ESTRATEGIKOAK

Ondoren, helburu estrategikoak aurkezten dira, arloka. Kasu bakoitzean adierazle bat edo bi proposatzen dira. Momentuz, helmugak (planaren amaieran lortu behar den balioa) zehaztu gabe daude. Hurrengo fasean, proiektuak definitzearekin batera adostuko dira.

H.E.1. Hizkuntza paisaia eta ingurune digitala

HE 1.1 “Enpresen inplikazioa indartu”

Arlo honetan enpresen inplikazio indartu beharra dago, eta horretarako enpresei laguntza teknikoa eta baliabideak eskaini behar zaizkio. INDEUS programa litzateke helburu hau lortzeko tresna garrantzitsu baten adibidea.

Adierazlea	Helmuga (2023)
Enpresekin lortutako hitzarmen kopurua	

HE 1.2 “Lortutako akordioak eta aurrerapenak gizarteratu”

Enpresen ordezkariekin lortutako akordioei balio eta garrantzia emateko eta enpresen konpromisoa sendotzeko, ezinbestekoa da gizarterari akordio hauen berri ematea.

Honetaz gain, hizkuntza paisaiaren inguruko ikerketa bideratu beharko litzateke gaur egungo egoera zein den jakin ahal izateko.

Adierazlea	Helmuga (2023)
Gizarteratzea lortzeko burututako ekintza kopurua	

H.E.2. Zerbitzu hizkuntza (arreta hizkuntza)

HE 2.1 “Ziurtagirien eskema egokitu bezeroen aukerak indartzeko”

Gaur egun indarrean dagoen ziurtagiri eskema hizkuntzaren kudeaketan maila aurreratua duten erakundeei zuzenduta dago. Erakunde txiki edo baliabide gutxi dituztenei zuzenduta exijentzia maila baxuagoko ziurtagiri eskema sortu beharko litzateke, behintzat, euskara zerbitzu hizkuntza (oinarrizko arreta bada ere) izan dadin bermatu ahal izateko.

Adierazlea	Helmuga (2023)
Ziurtagirien eskemaren egokitzapena lortu	

HE 2.2 “Bezeroen eskubideak jakinarazi”

Zerbitzu hizkuntzaren arloan aurrera egiteko, ezinbestekoa da bezeroek, dituzten eskubideak ezagutzea. Eskubide horien jabe direla jakitea lehen urratsa baita, gerora zerbitzuak euskaraz jasotzeko eskaera egiteko.

Adierazlea	Helmuga (2023)
Eskubideak jakinarazteko ekimen kopurua	

HE 2.3 “Saltokiekin elkarlanean lan egiteko foroak sortu”

Arlo honetan saltokien arteko elkarlana sustatzea oso garrantzitsua da, izan ere, saltoki batetan txertatu diren praktika onak, oso baliagarriak izan daitezke beste enpresentzat. Hala ere, elkarlan hau modu egituratu eta sistematiko batean egin beharko litzateke, eta horretarako foro eta tresna egonkorak sortu behar dira.

Adierazlea	Helmuga (2023)
Lortutako akordio kopurua	

HE 2.4 “Enpresekin elkarlanean lan egiteko foroak sortu”

Arlo honetan enpresen arteko elkarlana sustatzea oso garrantzitsua da, izan ere, enpresa batetan txertatu diren praktika onak, oso baliagarriak izan daitezke beste enpresentzat. Hala

ere, elkarlan hau modu egituratu eta sistematiko batean egin beharko litzateke, eta horretarako foro eta tresna egonkorrak sortu behar dira.

Adierazlea	Helmuga (2023)
Lortutako akordio kopurua	

HE 2.4 “Zaintzako tresnak indartu beste erakundeekin”

Kontsumobide bezalako erakundeekin lankidetzan aritzea garrantzitsua da, bezeroek euskararen erabilerarekiko adierazten dituzten keza edo arazoaren azterketa egiteko eta erantzuna emateko jorratu beharreko bideetaz hausnarketa egiteko.

Adierazlea	Helmuga (2023)
Kontsumobiderekiko garatutako ekimen kopurua	

H.E.3. Konpetentzia komunikatiboa

HE 3.1 “Bezeroen aurrean lan egiten duten langileen euskara gaitasuna hobetu, programa egokituekin”

Ikastaro egokituak behar dira langileek bezeroei zerbitzua euskaraz emateko gai izan daitezten. Euskararen gutxieneko ezagutza bermatzea garrantzitsua da, baina, batez ere, langileak zerbitzua emateko euskara erabiltzea lortu behar da, bakoitzak duen ezagutza mailaren arabera.

Adierazlea	Helmuga (2023)
Programa egokituen hartzailen kopurua	

HE 3.2 “Lanbide Heziketan eta Unibertsitatean euskarazko hizkuntza eredu bultzatu”

Lanbide Heziketa eta Unibertsitatea lan mundurako ateak izanik, garrantzitsua da eredu euskaldunetan ikasi duten ikasleek oinarrizko heziketaren bitartez lortu duten mailari eustea. Horregatik garrantzitsua da ikasleei lanbide heziketa eta goi mailako ikasketak euskaraz egiteko aukera gehiago ematea.

Honetaz gain, garrantzitsua da lan – mundura hurbiltzean egin ohi dituzten praktikak euskaraz ere egiteko aukera izan dezaten sustatzea.

Adierazlea	Helmuga (2023)
Lanbide Heziketako moduluen eskaintza hizkuntzaren arabera	
Unibertsitateko ikasleen lan – praktikak hizkuntzaren arabera	

--	--

HE 3.3 “Enpresetan konpetentzia komunikatiboa hobetzeko laguntzak eskaini”.

HE 3.1 helburuan aipatu bezala programa egokituak behar dira euskararekiko langileen konpetentzia komunikatiboa hobetzeko. Honetaz gain, beste mota batetako laguntzak ere baliagarriak izan daitezke, adibidez, sektoreka landutako hiztegiak edota euskararen gaitasuna hobetzeko diru laguntzak.

Adierazlea	Helmuga (2023)
Aurrekontuaren zenbatekoa	

H.E.4. Gizartearen aktibazioa (pertsonek eta erakundeak)

HE 4.1 “Euskarazko zerbitzuen eskaera sustatzeko sentiberatze kanpainak bideratu”

Zerbitzua euskaraz ematea eskatuz gero enpresa “presionatua” edo “behartua” sentitzen da arlo honetan urratsak emateko. Horretarako bezeroak aktibatu behar dira eta enpresetan euskararen erabilera sustatzeko duten ahalmenaz jabetu daitezten lortu.

Arlo honetan ikerketa sustatu beharko litzateke, bezeroek merkataritzan lehen hitza euskaraz ez egitearen arrazoiak aztertuz eta, orokorrean, enpresekiko harremanetan euskara erabiltzearen arrazoiak eta motibazioak zeintzuk diren jakin ahal izateko.

Adierazlea	Helmuga (2023)
Euskarazko zerbitzuen eskaera sustatzeko sentiberatze kanpaina kopurua	

HE 4.2 “Enpresei zuzendutako sentiberatze kanpainak bideratu”

Enpresek zerbitzua euskaraz ematea lehiakortasun faktore bezala ikusi behar dute, bezeroari balio erantsi bat ematen baitaio. Honetaz gain, lan hizkuntza bezala euskara sendotzearen onurez ere jabetu behar da, langileen kohesioan eta enpresaren erakargarritasunean eragina baitu, besteak beste. Beraz, arlo honetan sustapen eta komunikazio ekintzak zehatzak landu behar dira (kanpainak, esku – orriak, bisitak, hitzaldiak, eta abar).

Arlo honetan enpresei diskurtso sendo eta bateratu bat eleraztea garrantzitsua da, euskararen erabilerari prestigioa emateko eta euskararen kudeaketak enpresaren lehiakortasunean duen eragina argi eta garbi ikus dezaten. Gai honen inguruko ikerketa

sustatzea interesgarria izango euskarak enpresen lehiakortasunean duen eragina frogatu eta berretsi ahal izateko.

Adierazlea	Helmuga (2023)
Enpresei zuzendutako sentiberatze kanpaina kopurua	

HE 4.3 “Sektore arteko foroak bultzatu lankidetzak ekimenak sortzeko”

Gizartearen aktibazioa aipatzen dugunean, entitateen aktibazioaz ere ari gara. Zentzu honetan, entitateek bultzatutako sektore arteko foroak eta lankidetzak ekimenak babestu eta bultzatu behar dira.

Adierazlea	Helmuga (2023)
Sortutako foro kopurua	

HE 4.4 “Enpresa eta puntako markekin akordioak lortu aktibazioa bultzatzeko”

Erreferente izan daitezkeen puntako enpresa eta marken atxikimendua lortzea garrantzitsua da, beste enpresa batzuk aktibatzekeko tresna baliagarria izan daitekeelako.

Adierazlea	Helmuga (2023)
Puntako markekin lortutako akordio kopurua	

H.E.5. Lan Hizkuntza

HE 5.1 “Euskara Planak enpresetan garatzeko laguntzak eta programak indartu”

Enpresa jakin batzuetan euskararen presentzia eta erabilera modu eraginkor eta sistematizatu batean sustatzeko Euskara Plana oso tresna baliagarria da. Enpresek Euskara Planak martxan jarri eta hedatzeko beharrezko laguntzak eta programak bideratu behar dira gero eta enpresa gehiagotan, eta lantokien tipologia kontuan hartuta, tresna bezala barneratuak egon daitezzen. Enpresa txiki eta ertainetan bereziki, planak garatzeko aukerak eskaini eta areagotu behar dira.

Arlo honetan, berebiziko garrantzia du enpresetako kudeaketa sistemetan euskararen kudeaketa integratzea eta erreferentziazko markoak erabiltzea (EME, adibidez) aurrera pausuak modu sistematiko eta egituratu batean egin ahal izateko.

Azkenik, Euskara Planek enpresetan izan duten eragina aztertu ahal izateko eta aurrera begirako lan ildoak finkatu ahal izateko, orain arte egindako lanari buruzko ebaluazioa eta azterketa egitea ezinbestekoa da.

Adierazlea	Helmuga (2023)
Lan hitz programan parte hartzen duen enpresa kopurua	
Pilotaje ezberdinetan parte hartzen duen enpresa kopurua	

HE 5.2 “Enpresen arteko praktika onak partekatzeke sareak eta foroak bultzatu”

Beste enpresa batzuek ezarri dituzten praktika onak ezagutzea oso baliagarria izaten da. Horretarako sare egonkorak sortzea garrantzitsua da, elkartrukeak modu egituratu eta sistematizatu batean egin ahal izateko, banakako enpresen ekimenak alde batetara utzi gabe.

Adierazlea	Helmuga (2023)
Sortutako sare eta foro kopurua	

HE 5.3 “Ikasketa dualetan Euskararen erabilera zabaldu”

Nabarmena da gaur egun ikasketa dualak hartu duen indarra. Honek, ikasleak lan mundura lehenago gerturatzea ahalbidetzen du eta, beraz, garrantzitsua da ikasketa modalitate honetan euskararen presentzia sustatzea enpresak horretarako prest egon daitezen lagunduz.

Adierazlea	Helmuga (2023)
Euskaraz burutu daitekeen ikasketa dual kopurua	

HE 5.4 “Aitorpen eta ziurtagirien eskema indartu eta zabaldu”

Ziurtagiri bat lortzea garrantzitsua izan daiteke enpresentzat, euskararen erabilera sustatzearen alde egindako bidea aitortzen duelako eta gizartearentzat zein bezeroentzat ikusgai geratzen delako. Hala ere, ziurtagirien eskema birpentsatu beharko litzateke enpresa mota ezberdinetara egokituz.

Honetaz gain, garrantzitsua da kalitatearen aitormen eta ebaluaziorako merkatuan erroturik dauden ziurtagiri estandarretan (Kudeaketa Aurreratua, ISO eta abar) hizkuntza kudeaketaren irizpidea normaltasunez integratzeko urratsak egitea ere beharrezkoa da.

Arlo honetan ere, ikerketa sustatu beharko litzateke, enpresek ziurtagiri bat lortzeko ahalegina zergatik egiten duten jakin ahal izateko.

Adierazlea	Helmuga (2023)
Ziurtagirien eskema indartu eta zabaltzeko burutu diren ekintza kopurua	

H.E.6. AKORDIOAK LORTU

HE 6.1 “Legedia aldatzeko lortu diren akordioak lortu”

Esan bezala, legedia Plangintza Estrategiko honetan eragileen esku egon behar den tresna bezala identifikatu da. Legedia honen garapena akordioen bitartez egin beharra dago ezinbestean entitateen onarpenera eta atxikimendua lortze aldera.

Adierazlea	Helmuga (2023)
Legedia aldatzeko lortu diren akordio kopurua	

HE 6.2 “Erakundeen arteko akordioak lortu behar diren ekimenak definitu eta aurrera eramateko”

Arlo ezberdinetan aurrera egiteko elkarlana eta akordioak sustatzea ezinbestekoa da. Erakundeek, arlo ezberdinetan, sektore ezberdinetako enpresen egoeraren arabera lan markoak sortu eta adostu behar dituzte, enpresa bakoitzaren baliabide eta ezaugarrien arabera, urratsak emateko baliagarriak izango direnak.


Besteak beste, enplegu arloan lan egiten duten erakundeekin akordioak jorratu beharko lirateke, euskara lan munduan erabiltzeko gaitasuna prestakuntza programetan zeharkako irakasgai bezala txertatu ahal izateko, lanbide bakoitzarentzat programa egokituak sortuz.

Udalek ere lotura sendotu beharko lukete merkataritza eta industria enprekin eta, haiekin batera, proiektuak garatzeko bidea egin. Horretarako akordioak eta lankidetzak hitzarmenak bideratzea ere ezinbestekoa da.

Honetaz gain, sektore pribatuko erakundeekin (finantza entitateak, merkataritza, telefonia enpresak, AENOR, eta abar) indarrean dauden hitzarmenak gaurkotzea eta jarraipena egitea beharrezkoa da.

Adierazlea	Helmuga (2023)
Lortutako akordio kopurua	

8. PLANAREN MAPA



9. AGINTE TAULA ESTRATEGIKOA

Hurrengo taulan, Aginte taularen lehenengo atala aurkezten da. Lehen esan den moduan, helburu estrategikoen helmugak, hurrengo fase baten adostuko dira, proiektuak definitzarekin batera.

	ARLOA	HELBURUA	ADIERAZLEA	HELMUGA 2023
AZKEN HELBURUAK	EUSKARAREN EZAGUTZA	Lanbide Heziketan euskaraz ikasten duten ikasleen kopurua igotzea	"D" eta "B" ereduan matrikulatzen diren ikasle kopurua	%20ko igoera
		Unibertsitateetan euskaraz ikasten duten ikasleen kopurua igotzea	Unibertsitateetan "D" ereduan matrikulatzen diren ikasle kopurua	%20ko igoera
		Enpresetako goi karguetan euskaldun kopurua igotzea	Zuzendari euskaldunen kopurua (1.go eta 2. multzoan)	%20ko igoera
	EUSKARAREN ERABILERA	Hirigune eskualdetako zerbitzu enpresetan euskararen erabilera handitzea kontsumitzaileen aurrean.	2014ko inkesta oinarri hartuta, kontsumitzaileen euskararen erabilera maila	Kontsumitzaileen euskararen erabilera %5 igotzea
			Lan merkatuaren errolda oinarri hartuta, lanean euskaraz egiten dutenen langile kopurua	%5eko igoera
	EUSKARAREN ERABILERA	Eskualde industrialetan (2.multzoan) lan hizkuntzan euskararen erabilera areagotzea	Euskara plan kopurua	%10eko igoera
			Lan merkatuaren errolda oinarri hartuta, lanean euskaraz egiten dutenen langile kopurua	%10eko igoera
	KONTSUMITZAILIEN ESKUBIDEAK	Kontsumitzaileen dekretuaren betetze maila handitzea	Dekretua betetzen duten enpresa kopurua	%20ko igoera
	ENTITATEEN ETA KONTSUMITZAILEEN AKTIBAZIOA	Kontsumitzaileak zerbitzuak euskaraz jasotzeko eskarien kopurua handitzea	2014ko ikerketa oinarri hartuta (dekretuaren betetze mailaren ingurukoa), zerbitzuak euskaraz jasotzeko kontsumitzaileen eskari kopurua	%5eko igoera
			Entitateentzat euskara "ezaugarri bereizlea" izatea lortzea	Lortutako ziurtagiri, zigilu, aitorten... kopurua